

ENPRESAREN IDEIA

Gaur egun enpresa sortzeko modu desberdinak daude, baina enpresa ondo joateko ideia on bat eduki behar da. Merkatuaren egoera aztertu ondoren sozietatean behar bat detektatu dugu, ideia bat asmatu dugu eta aurrera eramateko pausuak hartzen hasi gara.

Betidanik joan gara erosketak egitera supermerkatu batera edo oportetan merkataritza-gune batera, baina asko kostatu zaigu gauzak non dauden kokatzea, eta erosketak handi bat egiterakoan denbora asko eskaini diogu. Batzuetan jendeak ez du denborarik eta erosketak azkar egitea denok gustukoa dugula iruditzen zaigu. Ondorioz, beharra detektatu ondoren ideia sortu dugu eta orain garatzen hasi gara. Baina lehenengo ikusi dugu merkatuan ez dagoela gure produktua eskaintzen duen inor.

Gure ideia aplikazio bat sortzea da, aplikazio horretan pertsona bakoitzak aukeratu behar du zer supermerkatu joango den eta zer produktu erosi nahi dituen. Ondoren erosiko duten lista bat jarriko du eta aplikazio bide efizienteena sortuko du eta produktu bakoitzaren kokalekua erakutsiko dio erosleari. Horrela eroslea supermerkatuan ahalik eta denbora gutxiena egongo da denborarik galdu gabe. Gainera, ikusmen mugatua duten pertsonentzat ere atal bat sortuko dugu beraiek modu erosoa ere erosketak egiteko.